

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Piarres Xarriton

*Hazparne,
Lapurdi
(1921-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Hazparnen jaio eta Baionan bizi den euskal idazle eta politikaria da. Euskaltzain osoa da. Aditua da Euskal literatura, Teologia eta Filosofian. Liburu asko idatzi ditu euskal idazle desberdinez, besteak beste, tesi doktora Piarres Broussain euskaltzalearen - Hazparneko auzapez eta kontseilari orokor ere izan zena- bizi eta obretaz egin zuen. Hazparneko eskola teknikoaren sortzaileetarikoa bat izan zen eta bertako zuzendari izana da. Eusko Alkartasunaren sortzaileetarikoa bat izan zen eta baita EA Iparraldeko presidente ohia ere. Alderdi horretatik Baionako zinegotzia ere izan zen.

Zintak

HAZ-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Data:** 2010-01-25
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Aire, Xan

HAZ-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Data:** 2010-01-25
- **Iraupena:** 122 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Hazparnek badu bere Bidasoa

- **Erref:** HAZ-001/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Haur denborak markatzen gaitu. Hazparne alboan dute Nafarroa Beherea eta Lapurdi bereizten dituen erreka, beren Bidasoa. Urtsumendia eta Baigura aurrez aurre, eta bestaldera (Gipuzkoa aldera) Jaizkibel mendia.</p>

Transkripzioa

- Bakotxak, gutaik bakotxa, bere haur denboraz da markatua, gehienik, uste dut. Nornahiri galdetzen badiozu: "Nundik zatoz? Eta zoin da zure sorteria edo jaioterria? Zein da?" Nere herria, sorteria da Hazparne, Hazparneko herria. Hazparne, erran nahi baita, Lapurdi eta Nafarroaren mugan den herri bat. Eta bada ibai bat, eta bostehun urtez bederen, ibai hori izan da gure Bidasoa. Zeren eta ezpaikaitu /zen ta ezipigitu/ Bidasoak berexi, oroz gainetik, hegoaldekoak eta iparraldekoak, edo mendealdekoak eta ekialdekoak, edo iuzkialdekoak. Euskaldunak non behar dituzu / behar'tuzu/ kokatu, mendealdean ala ekialdean edo iguzkialdean? Ala iparraldean eta hegoaldean? Bon, eman dezagun, oai, hola ai dela nagusitzen hori, iparraldea eta hegoaldea. Bueno, ni iparraldekoa. Beraz, Hazparne iparraldean da, egia da. Eta gero, bainan gure etxe aitzinetik, ikusten da mendia eta mendi horren bestaldean, frangotan erran dutana, Urtsumendia baitut etxe-aitzineko mendia, Baigura ezker, eta Urtsuia eta gero eskuin, han, Jaizkibel. Bainan horiek ageri dira. Ageri da, bereziki, etxe aitzinean, ageri da Urtsumendia.

2. 190 hazparnetar hil ziren I. Mundu Gerran

- **Erref:** HAZ-001/004
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>Bereter (meza-laguntzaile) izan zen txiki-txikitatik. Sakristian latinezko inskripzio bat zegoen. Buruz gogoratzen du. Gero eliza kanpora atera zuten idazkia. Haren ondoan dago I. Mundu Gerran hildako 190 hazparnetarren oroimen harria.</p>

Transkripzioa

-Eta gero badugu ere, baditugu herrian berean aspaldiko oroitzapenak, ttipi-ttipia nintzelaik beetter sartu in nitzan laster. Beetter nintzelaik latinik ez nekien oino, bainan sankristian, elizako sakristian, hemen ikusten nuen, eun guziez sakristia(ra) joa(te)n nintzelaik: "Vetus flamen item dumuir bagicuem magister pron oven optinuit populis se iungere Gallis ab urbe redux genio pagi hanc dedicat aram" latinezko pertsuak. Orai gogoz ikasi ditut, zen ta latina ikasi baitut, gero apeztu nahi nuelakotz, ta behar zen orduan latina ikasi, oai anglesa behar zen bezela. Orduan, han behar zen latina. Eta latinez irakurriak ditut, haur-haurretik sankristian, eta gero kendu dutelarik sankristiatik, hori [...] baten atzean baitzen harri hori, ezarri dute elizaren kontra, eliza, ezkerraldetik ezarri baitute Hazparneko

jaun auzapezak eginik, Broussain jaunak eginik: oroitarria. Hamalauko gerlan hil diren gaizo berrehun bat, ehunta lautan hoge ta hamar Hazpandarrer herriak eskerdun, ez Frantziarentzat, "Mourir pour la Patrie", "pour la Patrie" kantatu zuen gure adiskide Gorka Knörrek, kantu bat bada askotan kantatzen zuena, "Mourir pour la Patrie", zertako? Zertako "pour la Patrie"?

3. Unamuno eta Gavel elkarrekin Iparraldean

- **Erref:** HAZ-001/005
- **Iraupena:** 0:07:38. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Miguel de Unamuno bilbotarra, intelektual handia, Salamancako Unibertsitateko errektore izana, Hendaian atzerriratuta egon zen Errepublika aurretik. Biriatura joan zen batean, I. Mundu Gerrako oroitarria ikusi zuen, herriko semeen zerrenda, "morts pour la patrie". Hori ikusita, "Para qué" titulatu zuen poesia egin zuen. Zertarako eta zergatik borrokatu zuten gizaseme haiek? Salamancan bere ikasle izandako Henri Gavel hizkuntzalaria aurkitu zuen Hendaian eta harrezkero sarri egoten ziren elkarrekin. Poesia hori frantsesera itzultzean sortutako gorabeherak; "infantil" hitzari zentzu txarrik ez emateko ahaleginak.</p>

Transkripzioa

Ba... Baakit zertako, hori, beste euskaldun famatu batek idatzi baitzuen, espainolez, kanporatu zutelatik espainolek berek beren filosoforik handiena, bilbotar Miguel de Unamuno, hura kanporatu zutelarik eta Hendaian egon behar izan zelarik, ez Francoren denboran bainan jadanik lehenago diktadore akusatuak baitira, Espainian. General bakotxak, gerla galduz geoz behar zuen bere iraultza egin, erran nahi baita, behar zuen "pronuntziamientoa" egin, erran nahi baita, behar zuen botereaz jabetu. Erregeak eta enperadoreak tristeak izan dira, baina generalak...

Eta, beaz, kanporatu zuten Salamancako Unibertsitateko Errektore zen bilbotar semea, Miguel de Unamuno. Eta egon zen Hendaian kanporaturik bost urte. Gerla Zibila eta Errepublika, haien aitzin, Espainiako bigarren errepublika hogeita hamekan sortua baita. Eta ordüan, egon zen hor, eta heldu zen, frangotan, Bidasoa hegiz-hegi, goitik hunat heldu zen hor Behobiarat, edo Pausurat, hori ta beste zubi bat, eta gero Biriaturaino. Eta hor atxeman zuen, elizaren hormetan, hamalauko gerlaondoan, denetan ezarriak baitziren, gerlan hil herriko semeen izenak; nun ez ziren /etzin/ bestaldera pasatuak tarte hortan, zeren badira herri batzu, hire gurasoen herria bereziki, Aldude eta Urepele, han nahiago baitzuten herriko semeek bankaraino salto egin bestalderat, zinez eta gerlarat joan hiltzerat, zendako? Eta preseski, Unamunok Lehen Gerla Handiaren ondotik ikusi zian pertsuak bazirela hor ezarriak. Ezarriak ez... In zian poema bat, izena zuena "¿Para qué?" Espainolez. Zertako mila debru?, Zertako mila debru gaixo, gizon gazte, herriko seme gazte hoiek bizia eman zuten?... Ez zitean handinahirik, urgulurik, urgulua gaztigatu behar baita, batzutan, ta hiltzeraino, urguluz bizia gal baititake! Zertako mila debru hil ziren? Eta

"¿Para qué?" hori famatua'uk zen eta bere antologietan beti agerten baita Unamunoren poema hori, ta hain zuzen geroztik ikasia diat, gizon gazte bat baitzuen ukana ikasle berak, Unamunok, hamalauko gerla aintzin, han, Salamancan, eta gizon hura jina baitzen Frantzia iparraldetik hunat eta gero Xuberon Atharratzeko apez gazte baten anaiarekin, Xaro izena zuena, apez horrek, ezkondua baitzen, jaun hori in zuan hunat jakintsun handi bilakatu, Henri Gavel, euskuara ikasi. Eta izana baitzen Unamunoren ikasle hamalauko gerla aitzin, Unanun, gero beraz hemen ezkondu baitzen, Atharratzen, egun batez joan delaik Hendaiaat, hor atxematen duen bere irakasle ohia eta elgarrekin zonbeit aldiz ordutik harat bidaiatuko'uk Gavel Unamunorekin, besoz-beso. Eta joanen'tuk elgarrekin, preseski, poema hori egin zuen, "¿Para qué?", egin zuen hilarriaren aitzinerat. Eta elgarrekin aiko'tuk, "eta nola behar genuke hori erran frantsesez?" Eta problematxo bat ba'ik, Gavelek berak izkiriaturak kondatzen dik biziki polliki! Nola? Unamuno berriz hor ikusi zuelarik, ordukotz [...] adinean [...] joana zen ta, gerla aintzin, hamalauko gerla aintzin ezautüa zuen gazte-gazte zelaik, istudiante, bera Lilletik jina, espainola ikasteko eta joana Salamancarat. Han ezaütüa, erretore zelaik, ezaütüa, Unamuno. Eta gero berriz ikusia, beraz, bi gerlen artian diktaturak Primo De Riverak kanporatu zuelarik, ordüan, eta ordüan Unamuno badakiat Laffitek erranik, Saran egin baiginuan Etxeparen handiaren ohoretan egin baitzen egun bat, hogeita bostean, [...] han zela, Unamuno bera ere, Etxepar medikuarekin, elgar ikusi zutela, ta ordüan ikusi diat geroztik, beste paper batean, han zela ere Phillip Veyrin, eta kondatzen dik berak, nola han ibili ziren eta nola ai izan ziren, nola itzuli behar zen hori frantsesez, ez baitzekiten /ezpitzekiten/ fitsik gerlan hil ziren hoiek, Pausuko seme hoiek, euskaldun hoiek... Orai Iriart duk uste diat, Biriaturko mera... Bo, beti hilarri horren... Hortaz, ez zekitean /etzakitean/ fitsik seme hoiek, bakarrik beren eskuara "su euskera infantil". Errana'uk! Ta nola behar du hori itzuli ai izan zuan Veyrinekin. "Infantil". Ez duk erraiten ahal! Mesprexatzen duk, ordüan, ta geo Unamunok, ukan baitzuen eskualdunekin eta eskualzaleekin bere bataila, erran zuelakotz eskuara ez zela kapable gaurko kontzeptu berrien erraiteko, ta hola, mila bederatzirehun ta bian, baakik? Ta hori askoz geroago züan bainan etzian nahi... Eskuara hori bazakian Unamunok, hala ere, nahi izan baitzuen irakasle ere izan, eskuara irakasle, gaztetan, eta Azkuek hartu baitzion alxia, jelsiaz! Bono, ezbaizakon sekula parkatu hori... Bainan "infantil" bazakian, etzela frantsesa bazakian huntsa, etzela erraiten ahal "infantil". Eta orduan, beren eskuaraz nola erran in nezake, eta: "aurreko".

Les basques de leur enfance, qu'ils ne savaient rien, donc qui s'étaient des gens qu'il aurait fallu mépriser, si on avait dit infantil, ce mot que à leur langage, infantil, non... mais c'était simplement les basques de leur enfance qu'il les avait endormis, quand ils étaient petits, c'est le seul chant qu'ils avaient entendu, et c'est après qu'ils allaient mourir à la guerre loin, loin, loin de leurs montagnes des Pyrénées, là-bas sur le front de Verdun.

4. Ehuleak ziren arbasoak

- **Erref:** HAZ-001/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>Ez du aitatxi ezagutu. "Eulatea" zuen izena beren etxeak, ehuleak baitziren arbasoak. "Durangarren karrika" bada Hazparnen; Durangoko oihala egiten zen Hazparnen. Hainbat oihal motaren berri ematen du</p>

Transkripzioa

- Ez diat /eztiat/ gure aitatxi ezautu; nik izena, gure etxeak "Eulateia" baitzuen izena. "Eulateia". " Eulate" hegoaldeko izena'uk, Estella inguruan ba'uk Eulate. Irujo, "de Eulate" ere ba'uk, e! Bai[na]n gue etxea "Eulateia" züan. Eta, beaz ehuliak zituan gure arbasoak; denak ehuliak. Eta funtsean Hazparneko karriketan behatzen ba'uk karriken izenak, ba'uk, bistan duk "Francis Jammes", gue lehen auzoa baitzen, baina ba'uk ere, "La Rue des Duranguiers".

- [...]

- Hazparnen? A, ni Durangora joan nizelarik erraiten deiat beti: "A, ni pixkat zuetaik niz. Zen eta ez dakizue beharbada baina Hazparnen ezarria daukute "La Rue des Duranguiers"". Bada "La Rue des Cordonniers", baina hori azkenik jin da gure herrirat. Lehen lantegia zapetain... Zapetak egiteko, "Rue des Cordonniers" bada, baina bada ere "Rue des Duranguiers". Zer erran nahi baitu Durangoko oihala egiten zela Hazparnen. Baina bi mota baziren: baziren oihal ederrak, behien uztar estaliak egiteko, kopetakoekin eta hola, eta gero heien bizkarrian, idien bizkarrian ezartzen zen oihal eder hura, eta gero pesta-berri egunean lurrian hedatzen zen "dafaila" eder hura, e, hura, juduen oihaletik kopiätüa, juduak iaan (iragan) zielaik hemen, ikasi baitzuten nola, juduen apezak, "Le rabin", bizkarrean ezartzen duen oihal bat. Hori bera'uzu "la toile Basque", hori da, ta hoi egiten zen Hazparnen. Baina egiten ziren ere [...]. Marheak. Marhea oihalak, hoiek dira kalainkak deitzen direnak Hazparnen, erran nahi baita, kanpoan hedatzen zelaik, hartu han barnian, ilarrak ereiten baitziren, eta ilar hoiek behar baitziren idorrazazi gero, eta joz, zafratuz, (baina baitzien) kalainkan gainean ezartzen zenituen hoiek. Bazen oihal beltza're, baina hua gero, zapataientzat eitten zena, ta marhea hoiek, eta gero, erran dutana uztar estali hoiek eta hoiek oro, eta marheak hoiek oro...

5. Abereentzako buru-estalkiak egiten Hazparnen

- **Erref:** HAZ-001/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>Zaldientzako buru-estalkiak egiten zituzten Hazparnen. Frantziako iparraldean saltzen ziren. Kanaletan zaldiak ibiltzen ziren barkuak tiratzen burdina edo ikatza garraiatzeko, eta abereei burua estaltzen zieten horretarako. Ez zen tailerrik, etxeetan egiten zen lana.</p>

Transkripzioa

Kaputxak ere egiten ziren. Kaputxak. Bainan ez, ez enkaputxatuak edo kaputxadunak orai... Bai, batzutan ikusten dudalaik fotografietan, pixkat, orai, beste hitz bat da erabiltzen Frantzian, nahi baitute debekatu emazteen arropa, begien, bon... Hori...

- Burka famatua?

- Burka famatua. Bon... Arabak eonak dira Hazparnetik hurbil seuraz'e baina ez; etzen hori. Beste oihal bat babazen, kaputxa, Hazparnen egiten zena ta saltzen zen Frantziako iparraldean, zen ta han, Frantziako iparraldean, han egiten baitzen lihoa, eta han egiten baitzen oihala ere. Bainan han egiten baitzen ere hango kanaletan, egiten baitzen ikatza buru batetik, burdina bestaldetik, altzairuaren egiteko behar baitziren kanal hoietan, urbide hoietan, zaldiekin, [...] Buloñeko, "Le bulone", dira behi batzu, idi batzu, "Bulonesak" deitzen dienak, Buloñekoak, zen ta hoiek tiratzen zituzten zirgada batzuekin, tiratzen zituzten barkuak eta hor harria, edo burdina, edo ikatza, Frantziaren iparralde batetik besterat, beste bururat, kubritzen zuten, eta bazterretik, zirkada hoién [...] behar ziren edo zaldiak, edo behorrak, edo zaldi haundiak, edo behi handiak, eta gizon batzuek, kaputxa buruan egiten zuten bide hori, bide bazter, bazterreko bide hori, zirgada hoiek ekartzeko. Ta Hazparnetik joaiten ziren harat, hamalauko gerla arte, bederen. Hara. Hori ere jakiteko da.

- Eta, fabrikak eta baziren?

- Eta beraz, Fabrikaik ez. Etxetan iten zen.

6. Lihoari kotoia nagusitu zitzaionekoa

- **Erref:** HAZ-001/010
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:23:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

<p>Lihozko haria egiten zen garai batean bere etxean. Paperetatik jakin duenez, gaztainadia ere bazuten. Mahatsa ere bai. Biak hondatu zituen gaitzak. Lihook ere leher egin zuen, kotoia nagusitu zelako. Gipuzkoako Errenterian lantegi handiak sortu ziren. Koldo Mitxelena-ren familiak (ama, Elisalt, iparraldetikoa zuen) ere dirua inbertitu zuen horretan. "Milrayas" izeneko oihal berezi batez ikusten zituzten hegoaldekoak.</p>

Transkripzioa

- Eta atxeman genituen guk, ukan genituen bola'atzu: haria. Lihozko haria.
- Lihozko haria.

- Egiten baitzen oihala, nahi bazen egin, gue etxean, egiten baitzen oihala, eta paperetan ikusiz konturatzen gira, etzela bakarrik egiten haria, bañan egiten zela ere, aatsetan, afaltzeko, hor [...] jan behar ginuen gaztenak, gazten erriak jaten genituen, zeren ta ikusi dut herriko paperetarik, Eulateian, gure attonan etxean, hamazazpigarren mendean, gure etxeok eosi zutela gaztandea, egin zutela Peña. Etxean gaineko aldian baitzen Peña [...], Peña izena zuena. Han gaztandea bazuten, paperetan ikusia'ut, artxibetan, hori. Baina gaztenak, gaitzak jo zuen. Hori, eta etxe aitzinean ere ezkerretarik baitzen mahasti bat ederra, non arnoa egiten baitzen, han sartu zen berriz "mildiu" gaitza, filoxera, eta, beaz, hirugarrena, lihoa.

Lihoa ere egiten zen. Gero egin zen artoa baina lihoa egin zen, baina lihoak ere leher egin zuen. Zenda? Zeren hemeretzigarren mendean bigarren partean, Ingalaterratik, Mexikoan, sos, diru asko, peso frango sakelari ezarri zituzten iparraldeko batzuek, erosi zituzten Ingalaterran makinak, oihalak egiteko algodoiarekin. Eta orduan, nola lihoa leher egin baitzen, orduan algodoiak ehortzi zituen guziak, eta Errenterian lantegiak, lauhun langileetako lantegiak agertu ziren. Mitxelena, Elizalt, iparraldetik joan horietarik da gure Mitxelena haundia, Errenteriarra joana. Elizalt; horiek Ziburutik joanak ziren, edo Donibane Lohitzunetik Ameriketara izanik, beharbada, eta gero itzulirik horrat, zontzuek dirua egin baitzuten. Heiek lantegiak egin zituzten, eta orduan, haurrak ginelarik, ikusi ditugu hegoaldeko soldaduak asko, eta soldaduak ez bakarrik gudariak, baina ere beste jendeak, arrantzaliak. Hedu, "mil rayas" deitzen ziren oihala berezi batzuekin. Horiek baitziren hor Errenterian edo Ondarruan egiten ziren oihala horiek. Hara, horiek ikusi ditugu "mil rayas" horiek.

7. Hazparne, larrugintzara zuzendutako herria

- **Erref:** HAZ-001/012
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

<p>Hazparnetik Aturri aldera doan ibaian hamahiru eihara ziren, baina horietarik hiru bakarrik garia edo artoa ehotzeko. Besteek zenbait zuhaitzen azala ehotzen zuten (haritza, ametza, gaztaina) larrua tindatzeko tinta egiteko. Larru-apaintzaile ziren hazparnetar asko. Biziki lan zikina. Larrugintza hondoratu egin zen alemanak produktu kimikoak erabiltzen hasi zirenean. Askok Ameriketara emigratu zuten, bereziki Kubara, Habanara. Irakasle bat doktoretza tesia egiten ari da Hazparnetik Kubara joandako larru-apaintzaileez.</p>

Transkripzioa

Zer egin zuten. Liho hori. Lihoa galdu zelarik. Etxean lanik ez. Gaztenak ihartu zirelarik, eta haitzak ere bai, zeren haitzaren azalarekin ere zer egiten zen? Gure etxearen behean, larregain behean, eman dezagun, hor baduzu ibai ttipi bat, ttipi bat, joaten dena Beskoitzaraino. Eta Beskoitzetik gero Baionaraino ta gero Aturrirat sartzen dena. Eta hor Hazparnetik eta Beskoitzeko mugaraino baziren hamahiru errota edo eihara, erraiten zen bezela. Baina hamahiru edo hamahiru edo hamalau eihara hoietarik, hiru ziren edo lau, bakarrik, ogia edo artoa, garia eta artoa [...] zirenak. [...] ehotzen ari zirenak. Besteek zer zuten ehotzen? Besteek, tanerak deitzen zirenak, horiek ehotzen zuten gaztan azala edo zuhaitz azala; haitz azala; ametz azala. Zeren horrekin gero, errauts horrekin, hori emaiten baitzen trenpan, urian, eta hor ezartzen ziren larruak. Larru apaintzale ziren hazpandar asko. Eta hola zuten egiten, larrua apaintzen, errauts horri esker. Ta ezagutu ditut gure auzuan hortan ai izanak zirenak; lan zikina izigarri, larru apaintzaileena! Larrua behar baitzen lehenik ganieta handi batekin, labanarekin larrutu barnetik, garbitzeko haragiki guziak eta gero utzi hiru urte, bi-hiru urte behar zen utzi trenpan. Eta, baina, horiek oro bukatu ziren. Zeren hor ere Alemanian hasi baitzen konpetentzia egiten larrua, larru garbia, ta, egiten

"kimiarekin", produktu tekniko batzuekin, teknika berriekin, eta orduan akabo izan zen. Eta ze in'tzuten Hazpandarrek, hortan ohituak zirenek? Joan ziren Ameriketarat, ta gehienak hazpandarrak, Kubarat, La Habana. Badakizu badela Hazparnen orai gazte bat, ai dena, Kuban egona, izena dena Zuburu, eta emaztia hangua du, Kubakua, ta haurrak ikastolan ditu Hazparnen, andere horrek, eta berak, bukatzera doa bere tesia: "Hazpandarrak Habanan". Kubako Habanan.

- Ta, zer zuten Kubara joaiteko...

- Han ofizioa baitzuten! Tanerrak ziren, eta tanerriak lauehun hazpandarren izenak baditu atxemanak Kuban aberastu direnak larru apaintzale bezala. Laurehun baditu atxemanak; Hazparneko izenak, denak Hazparnetik ateraiak. Zubururi galda zaiozu. Han duzu Xilbeindiko ondoan bizi, gizon hori, gizon gaztia da, tesia doktora, espainola irakasten du hemen, fakultatean, ban ber denboran bere tesia [...] emigrazioari buruz.

8. Aitona, umore handiko gizona

- **Erref:** HAZ-001/014
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aitona ezagutu zuen Donamartiriar batekin izandako solasa. Umore handiko gizona omen zen aitona. Hainbat pasadizo kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta han zen, delako Donamartiriko gizon hori, gaztia zen oaino, ordüan, ta han mutil, etxe hartan mutil zen, laguntzaile, eztakit ze lanetako, baiña. Hori erran zautan berak. Eta egun batez jin zen Eulatei, Eulatei, zure aita harat eta... "Aaaa..." Ai omen zen holaxet, bere belaunak joz. "Ene, ai,ai,ai... Ene belaun hauek! Eztut konprenitzen nolaz, Jinkoak eginak gaitu denak eta biek adin bera'ute, bainan ez ditu bardinak egin, edo biziki ukan behar du berak, Jinko onak, "marchandise" huntaik niri hoinbeste emaiteko orai, zen erreumatismoak josia nabil!". Hara nola zuen maite irri egitea.

9. Euskal kantuen liburutik abesten

- **Erref:** HAZ-001/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Amak kanta-liburu bat zuen. Buenos Airesen 1900. urtean argitaratua euskal kantuekin. Artazuritzetan edo ogi-joiteetan (gari-jotzeetan) kantatzen zuten. Baziren izenpetu gabeko bertso famatu batzuk, zeinetan batek eraso eta besteak erantzun egiten zuen.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, bestalde, horrekin, aitatxi ez dut ezagutu bainan ezagutu dut, ukan dut liburu bat aurrean asko ibili duguna, zen ta gure ama, supazterrean ginelarik, hari beitzen beti, liburuakin kantuz; euskaldun kantariak. Ta liburu hori zen, Guarda semiak, Guardatarrak, Hazparnen ezagunak baitziren, denak, zeren guardak zer dira? "douanier". Eta "douanier"-ik etzen Hazparnen. Nere denboran ia ez zen /etzen/ gehiago, guardaik. Bainan baziren jende'atzu, deitzen zirenak denak Guardatarrak. Horiek ziren Mendiaga familia. Eta bat bazen dendaria, jostuna, ta harrek josten zizkigun arropak eta hola, emaztiak e, jostuna zen bera, ta han ibili gera frangotan, eta gue etxekuekin ere bazituzten biziki harreman onak. Eta egun batez liburu hori behatu dakot ta ikusi dut zer zen, nun publikatua zen liburu hori, 1900. urtean, La Vasconia, Buenos Aires. Buenos Airesetan. Horko kantuak entzuten genituen kantatzen, bestetan, edo arto-xuitzetan, edo ogi-joitetan, bukatutzian eguna etxen jaten baitzuten, e, eta orduan entzuten gintuen kantuak. Bereziki, bazen bat, "firmarik gabekoari", Hazpandar batek bidali zizkion pertsuak bainan firmatu gabe, eta atakatzen zuena, ta bestiak arrapostua eman. "Firmarik gabekoarenak"!, Fua!

10. Baionatik irtendako barkua Hego Ameriketako kostaldean urperatu

- **Erref:** HAZ-001/016
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:34:58. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>'Katxo' ezizeneko hazparnetar baten bertso batzuk oso famatuak egin ziren. Kontatzen zuen Baionatik irten eta Pasaian hainbat bidaiari hartutako barkua nola hondoratu zen 1842an Hego Ameriketako kostaldean, 270 pertsona itoz. Barku horretan zihoazen senar-emazte gazte batzuen istorioa. Senarra ito zen eta alarguna ezbehar horretatik bizirik irtendako gizon batekin ezkondu zen. Xehetasun ugari aferaz. Senarra hegoaldekoa zen eta Lujanbio zuen abizena. Baliteke Maialen bertsolariaren senidea izatea. 'Galerianoren kanta' Bordaxurirena dela esan ohi da, baina beraren ustez bertso horiek ere Katxorenak dira.</p>

Transkripzioa

Ta gero baziren ere Katxoren kantuak hor, Katxo, Katxoren kantuak eta partitu baitzen untzi bat, Baionatik, 1842an, eta gero, hondatu zen, hondatu zen, Hego Ameiketan, eta han, baziren senar emazte batzu, hiruehun lagun ziren ta hiruehun horietarik, berrehun eta hirutan hogeit ta hamar ito ziren. Castillejos, berrehun legua, lekua... Castillejos izena duen uharte batean, uharte ez, arroka batzuen kontra joanik. Hondatu zen untzia, barkua. Eta bakarrik bizirik atera ziren hirurogeita hamar lagun. Ta hoiek oro Baionan ziren lehenik sartuak eta gero Pasaian ere. Eta ito ziren, beaz. Bainan baziren bidaia hortan, izenak hor dira, baziren senar-emazte batzu, batek izena zuen Itzia, gizonak, ta bestiak Zabaltzagarai; Joana. Eta

erori zen ureat Joana Zabaltzagarai, lehenik. Gizonak salto egin; Itziak. Itzia ito ta Joana salbatu. Bainan gero, uhainek bildu zuten, borobildu, eta ura bazterrean salbatu zen. Ta nola ezkonduak ziren biak, hemen, urtarrilean Hazparnen. Hor hartu zuen hegoaldeko batek bere langile gisa, eta gero ezkondu zen bizirik atera zen hegoaldeko batekin. Eta, nor zen hura? Lujanbio. Lujanbio, Pasaian igoa zena salbatu zen, eta Intxausti izena zuen dendari batek, jostun batek hartu baitzuen jostun bezela, jostun ona zelakotz Joana Zabaltzagarai, ezkondu zen gero, harri esker ezkondu zen Lujanbiorekin. Eta heldu baita urte bat barne bi aldiz ezkondu zela, elizaz eta legez behar zen bezela; alargundua Itziarenganik, ezkondu zen Lujanbiorekin. Istorio hori beti gogoan dut egun batez beharko diodala Lujanbio andereari kondatu, "erre" egiten baitu iparraldeko bezela, nik uste familian hori ikasia dukete beharbada Zabaltzagarai ene familiarenganik! Galda niezaoke berari. Ikusiko baldin bauzu ni behin nola ene erragoiozu. Lujanbio hori ez da hortan bukatzen. Gero izan naizelarik han, ikusi baitut toki hori non gertatua den, ezarria baita, karrika batean, han, "Rue Leopoldine Rosa". Barku harek "Leopoldine Rosa" zuen izena. Baionatik partitu zena ta [...]" Tradition de Pais Basque", Francisc Michelek egina baitu, hor badira Katxok eginak dituen pertsuak. Eginak ditu handik.

- Handik...

- Handik. Buenos Airesetaik. Heldu da berria, beraz, untzi hori hondatu dela. Eta hori kantatzen du Katxok. Ta hori zertako? Katxo hori Hazparne Katxoteikoa baita. Katxoteiko auzoan zein da ere gertatzen? Galerianoaren etxea ere hor da. Ta berifikatu dut, Galerianoa Katxoteirat joan dela beste'at beheretik, eta Katxo zela lehen auzo Galerianoaren, Bordaxuritarren familiari hurbil. Eta beaz erraiten du, bueno, "kanta ditzaten... harriz kargaturik"... Hola, Hazparnen kanta ditzaten... [...]. Bainan, nere ustez, hor dugu Haritchelarrekin eztabaida, nere ustez, leküak ikasten batutzu, ikuste'utzu Katxo dela egin dituen pertsu horiek. Beste batzuk baititu ere berak inak, "nahi baldin bagira hil eta salbatu". Zer da hor, ezen Hazparneko lehen misionesten mamia? Heien predikuen mamia. Entzuten zituen nola mintzo ziren orduko misionestak, "nahi baldin bagira hil eta salbatu", heien teoloxia guztia hor da, ene ustez.

- Handik...

- Handik. Buenos Aireseti. Heldu da berria, beraz, untzi hori hondatu dela. Eta hori kantatzen du Katxok. Ta hori zertako? Katxo hori Hazparne Katxoteikoa baita. Katxoteiko auzoan zein da ere gertatzen? Galerianoaren etxea ere hor da. Ta berifikatu dut, Galerianoa Katxoteirat joan dela beste'at beheretik, eta Katxo zela lehen auzo Galerianoaren, Bordaxuritarren familiari hurbil. Eta beaz erraiten du, bueno, "kanta ditzaten... harriz kargaturik"... Hola, Hazparnen kanta ditzaten... [Nik etzakit]. Bainan, nere ustez, hor dugu Haritchelarrekin eztabaida, nere ustez, leküak ikasten batutzu, ikuste'utzu Katxo dela egin dituen pertsu horiek. Beste batzuk baititu ere berak inak, "nahi baldin bagira hil eta salbatu". Zer da hor, ezen Hazparneko lehen misionesten mamia? Heien predikuen mamia. Entzuten zituen nola mintzo ziren orduko misionestak, "nahi baldin bagira hil eta salbatu", heien teoloxia guztia hor da, ene ustez.

11. Teologiak munduaren mugimenduari jarraitzen dio

- **Erref:** HAZ-001/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:40:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Teologiak munduaren mugimenduari jarraitzen dio. Xalbador bertsolaria izan omen da beren teologoa, eta amarekin ikasitako kantuak bere katixima.</p>

Transkripzioa

Eta nahi banu egin teologia beste tesi bat, ordüan egin nezake, preseski, nola aldatu diren gauzak... Teologiak segitzen du munduaren mobimendua. Eliza munduan da, eta beraz, munduaren mobimenduari segitzen da eta hoiek oro... Zue aitatzik, nere ustez errainen dut, zue aitatzik izan da gue teologoa. Zue aitatzik izan da, zen ta teologoa ez du esan nahi seindua dela, teologua da norbait, Jainkoa nor izan ditake, guetzat, nor da Jainkoa guetzat. Eta jainkoak, bakotxak behar du bere ideia egin, nor den Jainkoa berarentzat. Eta kondatuko dautzut, gero, horiek oro, ene gogoan, kondatzen daizkitzuten istori horiek oro nik bizi izan ditudanak baitira, zeren, beaz, ttipia nintzelarik erraten dautzut amarekin eta kantatu, kantu hoiek oro, horie izan dira ene katixima.

12. Diharce apezaren katixima ikasi zuen txikitan

- **Erref:** HAZ-001/018
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:40:42. **Bukatu:** 00:44:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Senide batek, Diharce jaun apezak, egina da berak txikitan ikasi zuen katixima. Leon XIII.aren denboran bikario nagusi izendatu zuten errepublikaren aldekoa zelakotz. Aitasantu hau saiatu omen zen apezak politikaren menpe egon ez zitezen. Apezpiku izateko proposamena ere egin zioten Diharce-ri, baina ez zuen nahi izan.</p>

Transkripzioa

Nahiz ene katixima zen ere beste liburu bat hor dutana, binon biziki ederki [...], zen ta horren egilea ene osaba baita. Ene osaba, amaren, amonaren, Dominika Zabaltzegarai baitzen, haren anaia zen egona hemen Baionan lehenik, Larresoron, hamar urte, irakasle, Latina, Espainola, Greka... Hoiek oro hemen bibliotekan nik etxean ukan'tut. Hamar urte nintuelarik. Hil baitzen mila bederatzirehun ta hogeita hamarreen. Eta sartu baitzen bikari general hemen, Leon trezen (XIII) denboran, errepublikanoa zelakotz. Intxauzpe, aldiz, Bonapartista. Xuberutarra. Ta gure osaba, Eztiteiko semia, hura, errepublikanoa omen zen. Eta hemen jin zen apezpiku bat errepublikanoa, ta Leon "treze" aita sainduak galde in tzakoten katolikoer, Frantziakoer, utz zezaten errege eta enperadore eta errepublikan istoriorik bakean, eta izan zitezen giristino onak eta nahi zuten politika egin, Jinkoaren legearen arabehera. Eta hori gaizki hartu zuten apez euskaldun ainitzek. Partikularzki Intxauzpe, been jinkoa baitzuten, gaitza baitzen

hura, gizona! Jakintsuna! Eta aldiz, apezpiku berria jin zena, Jauffret, omen, aneia, fama oso ona omen zuen, diputatu Marseillan, omen. Harrek ardietsi zuen aneia jin zadin honat, aphezpiku. Honat arribatu orduko, neork ez nahi haikin bikario jeneral sartu, joan zen ene osaba, egona baitzen hamar urte Larresoron, eona zen gero beste hamar urte semenario handian morala eta liburu sailduen irakasle, hura egin zuen. Eta Leon "trezek" in zuen, berehala, [...], Monseñor Diharce. Eta gero proposatu zuen Jauffretek apazpiku joan zadin. Banakien hori! Baina orai Xiprik ekarri daut Parisetik, nontziaturako papera badut, Montseñor Jauffretek hizkiriartzen dio Aita Sainduari untsa litakela Montseñor Diharce apezpiku egin baleza. Ta banakien errefusatu zuela. Bon. Eta orduan, gertatu zen "séparation des Églises et de l'État". Lau urtez eon ginen Baionan apezpikurik gabe. Ta ordüan Montseñor Diharce izan zen "Vicaire capituler". [...]ren denboran, ta hala egon da, egun guztiez gauza bera, beti lanean, geldi-geldia, bere liburutan ari izana da. Etzen predeikaria, erraiten du Montseñor Diharcek; hil delarik kondatzen ditu nor zen harentzat, egun guztiez, goiz guztiez, lehenik meza eman eta itzultzen zen bulegorat, atsaldetan joaten zen Sakramendu Sanduaren bisita egiterat, gero itzuliño'at egiten zuen [...], etxeat heldu ta hola berrogei urtez in du Baionan. Ta orduan ikusi'tu hegoaldeetik heldu ere, ez, ez zen Espainiako gerlaik bainan aintzinean iaanik Jesuitak kanporatuak zituzten hogeita hamarrian, eta ikusi'tut haren liburüetan, baituzue liburüak hegoaldekoak Baionan inprimatüak, han, ["hommage à moseñor Diharce"], Julio de Urquijo, adibidez, eta Kardaberatzen liburu bat, bera Gipuzkoan jesuita bat hemezortzigarren mendekua, egiten du, bera gipuzkoarra izanagatik, egiten du, Bizkaitarrez egiten du katixima. Hara, ta hori badut hor; errana dakot Urrutiari nahi'uzulaik ikusi, ikusiko'uzu: ["hommage à moseñor Diharce"]. Hara.

13. Kantu eta kobla giro handia Hazparnen

- **Erref:** HAZ-001/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:49:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

<p>Joxe Mendiage hazparnetarrak Ameriketatik bidalitako bertsoak kantatzen ziren herrian. Iparragirre ezagutu zuen Mendiagek Ameriketara. Hazparneko neska batek kantu lehiaketan lehen saria irabazi zuen. Norgehiagoka ibiltzen zen Kanboko neska batekin. Neska hauek Pierre Broussain euskaltzale handiarekin izandako harremana. Kantu eta kobla giro handia zen Hazparnen. Mirande apaiz zuberotarrak komediak bultzatu zituen Hazparne aldean.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, azkenian, Jose Mendiage, hura're joanen delaik Ameriketara igorriko ditu /iorriko'tu/ handik Hazparnen bizi diren batzuer, bere lagunak ukanak dituenak gazte denboran, zeren Hazparnen ezautu baitu Zaldubi, ta Zaldubirekin ai izan da ikasten eta gero han atxaman du Iparragirre ere, Ameriketara joana hura're, eta haren aireen gainian Joxe Mendiagek eginen'tu bere poema gehienak eta hoiek Hazparnen entzunen'tut kantatzen denek, kartiereko jendek-eta kantatzen zituzten, bistan da, Galerianoaren kantua, bainan ere Xetreren kantuak, eta Azketako

pertsularien kantuak, Aña debruia erraiten zakoten [...] bati, zen ta irabazi baitzuen lehen saria, eta "zeingehiagoketan", Hazparneko nexka bat zen eta kartiereko Belokea bu'uz Hazparnetik joan zelaik, ezkerreta joan zienin, ostatu bat, ostatu bat, ta hortako etxeko alaba, mutxurdina zen, en fin, mutxurdina, neskato gaztia... Harri eman zakoten lehen saria: Aña Etxegoien. Hara eman zakoten lehen saria. Aña debruia, debrusa, deitu zuten, zen ta ardita baitzen, ez bat'e beldurtia. Eta han baitzen Kanbon, beste neska'at haekin in'tzuen gehiagoka, izan'tzin pertsuetan, mila zortziehun ta laurogeita hamalauian. Han izan zien bi emazte hoiek, zoin gehiagoka, ta izigarriko fama ukan zuen, ta gero trufatu ziren Broussain-ez, zen ta Broussain oraino gaztea baitzen eta ez-ekondua ere, eta bakarrik eskuarari eta pertsuarier errabiatuki lotüa, eta gero lagunek atakutzen dute: "zer hintzan, doaika, sobera goxatzen hire debrusarekin". Hara ze izkiriartzen dakoten lagun zonbaitek, Constantin-ek edo hola, bestalde, baitzakiten bazituela hola, neskak, bere gustukuak Parisen, hogeitaz eon baitzen Parisen, Broussain, eta gero han, badira letrak handik heldu zirenak eta hoi galde inez, bera Amerikano semia zelakotz, Broussain hori.

- Eta ordüan Hazparnen bazen hori...
- Giro hori.
- Bai, giro hori ta jakitate hori? Kantien...
- Ah ba, ba, ba, ba, ba, ba! Kantiak asko maite zituzten, ta geo, erretor bat ukan ginuen hor, Mirande hura, harek komediak modan jarri zituen. Gu haurrak ginelaik, izan ziren hor Mirande bera, Mirande bera nahiz Mauletarra zen, eta Mirande bera egona zen bikario Baionan, hemen, eta apezpiku Gieure-rekin. Tribunaleta deitu zuten apezpiküa, eta Mirande, eta beste bat, Arrangoiztarra, izena zuena Gaston Larre. Ze'en eta ezpita Hazparne bakarrik Iparraldean.

14. Hazparneko neskarekin ezkondu Napoleon III.aren seme bastarta

- **Erref:** HAZ-001/021
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:49:14. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Arrangoitzeko handiki familia baten gorabeherak. Napoleon III.ak harreman handia izan zuen eskualdearekin. Sasiko seme-alabak (bastartak) zituen. Horietako bat Hazparneko neska batekin ezkondu zen. Haren amari kobrezko zaldi-irudi bat oparitu zioten, ezagutu zuen txikitan Pierrek irudi hori. Familia hori Larreidy medikuaren aitzinekoa omen zen. Larredy medikua izugarri aberatsa eta zuhurra (zikoitza) zen. Gaztaren pasadizo barregarria. Behin langileek mahastiko aihen guztiak erroitik atera zizkieten gaizki ordainduak zirelako.</p>

Transkripzioa

- Bazen ere Arrangoitzen, baziren bi familia handietak, jende handietak, bat Soulange-Bodin izena zena. Aita enbaxadore ukana, eta enperadorearen denboran eta hola, Napoleon III, hemen [gaindi ibiltzen] baita biziki, Montijo bere andrearekin, hura euskalduntzat baitzeukaten anitzek! Ta hori dela ta, hemen izan da, izan da, egin du Baionako Saint-

André-ko eliza, haren sosetik ina da, bainan anitz parroketan berak utzi ditu sakramentu santuaren eta... Bon, denak balentriak! Eta gero bazituen bere bastartak ere! Hazparnen kondatzen zen, bazuela bastart bat. Hor, Landesetan kokatu nahi zuena, bakizu Napoleon "trois"ren denboran badiela Landesak, Landesetako pino horiek denak landatu, eh! Ta baakizu hor badela herri bat izena duena Solferino. Bon. Solferino hortan Napoleonen seme bartart bat ezkondu zen Hazparneko neska'atekin. Eta orduan Hazparnetik joan ziren omen, nexka harren familiakoak, eta geo konprenituko'uzu zer erran nahi duen horrek, zeren izan delaik, ezteiak izan dielaik, joan behar duzu ikusgarria, eta Hazparnetik gainbehera heldu zielaik, misionesteitik eta elizaraino, eskuinetaik bazen, uai ezta, bana uai baduzu "un centre médical". Ba horren aitzinean, gu haurrak ginelaik, bazen zaldizko, zaldizko eder bat, dena kobrez egina, enfin, en fonte, ta hori zen omen ezteietako karrua, Etxekoandriak ukan zuena, ezkondu zelaik, ez etxekoandriak ez, xuxen nork eztakigu, Napoleonen bastartarekin omen ezkondu zelaik, hori ekarri zuten, horrat. Ta hori, ziren, Larredy-ren aitzinekoak. Larredy meikua zen. Ni haurra nintzelaik "gastro-entérite" ukan bainuen; etxeko medikua, Larredy. Doktor Larredy. Ta Larredy hori heldu zen Irisarritik, zen ta Irisarri Napoleonen alde agertu baitzen ta meriako sekretario zelaik bota zuten handik, eta jin zen Hazparnerat, eta Hazparnen erreusitu zin, aski abila baitzen Hazparneko mera Harriague batekin ezkontzea. Eta Harriague [...] Hazparneko mera zelaik, Joan omen zen Jerusalemerat. Etxeakuan, hondatu zen untzia, doaika, à l'île de Malte, edo hor, itoik hil zen. Eta orduan, beraz, halere, hor zen norbait, jaun hori. Ontasun izigarriak bazituen Hazparnen, bainan izigarri zuhurra jali zen doktor Larredy hori. Famatüa, zuhurra, zikoitza. Hanbestetaaino, nun, erraiten baitzuten, omen, etxe hortaik, joan zielaik, gasna alimale'at eman zakotela Solferinoko konteari edo dukeari, eta gero, han esker onak ukan zuztela doaika, bainan erdia etxeat ekarri zutela! Aintzin famatuak idorrak! Ta bestalde, Broussainen paperetan atxeman dut beste paper bat, han etsaia baitzen geo, politikan! Arrunt gorria, karbonero eztakit ze, bertsuak badira eginak, nun kondatzen duten, Hazparnetik beheiti elizara buruz heldu zerelarik bet-betan, ikusi duten etxe batean mahastiko aihen guztiak erroik ateraiak diren. Eta kondatzen du zendako, zen eta etxekandriak langiliak hartu baititu bainan ez behar bezela paatu, eta kaztiguz, hortako dizkote erroik atera bere mahastiko aihen guziak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com